

Oñatiko Emakumion Etxia:

Gobernantza eta Antolaketa



OÑATI
dabilen herria



Oñatiko Emakumion Etxia:

Gobernantza eta Antolaketa



OÑATI
dabilen herria

Aurkibidea

Sarrera	5
Kokapena	6
Helburuak	6
Antolaketa-eredua	7
Gobernantzaren Elementuak	8
Zirkuluak	8
Rolak	11
Udalaren Partaidetza	14
Bidelagunak	16
Emakumion Kontseilua	16
Herriko eragile feministen rola	17
Oñatiko Emakumion Etxeko Gobernantza eta Antolaketa Egitura	18

Dokumentu honetan, Oñatiko Emakumion Etxia gobernatzeko eta antolatze
aukeratu den ereduaren berri ematen da. Eredua 2024/2025 ikasturtean adostu zen, “Oñatiko Emakumion Etxia Eraikitzen” partaidetza-prozesuaren barruan.

Hala, prozesuan ateratako ondorioak abiapuntu hartuta, gobernantza-sistema eta antolaketa-eredua landu zuten elkarlanean Gobernantek eta Udalak, eta, ondoren, apirileko bilera orokorrean, etxekideek ontzat eman zuten.

Dokumentuak lau atal ditu: lehenengoan, kokapena egiten da; bigarrenean, gobernantzaren elementu nagusiak deskribatzen dira; hirugarrenean, udalaren rola zehazten da; eta, azkenik, bidelagun eta aliatu diren eragile feministekin harremanak nola bideratuko diren azaltzen da.

Kokapena



Helburuak

Oñatiko Emakumion Etxiaren gobernantza-sistemak, eraketa-prozesuaren ondorioz, honako helburu hauek ditu:

- Etxiaren xedea, ikusmira eta balioak sostengatzea.
- Ekipamenduaren izaera publiko eta irekia bermatzea.
- Erabakitze eremuak demokratizatzea.
- Lau ardatzetan oinarritutako gobernantza: feminista, interseksionala, komunitarioa eta ahalduntzailea.
- Parte-hartzeko modu ezberdinak aitortzea eta bakoitzak bere jakintza, gaitasun eta esperientziaren arabera parte-hartzea.
- Erabakiak elkarrekin hartzea, baina guztiok dena erabaki beharra izan gabe.
- Osagarritasuna: eragile bakoitzak proiektuari bere onena ematea.

Sistema honetan, gobernantza eta kudeaketa bereizten dira. Alde batetik, erabakiak hartzeko

espazioak daude; horietan etxekideek eta Udalak parte hartzen dute. Bestetik, Etxearen jarduna eta hari loturiko zereginak daude. Udalak behar adina baliabide ekonomiko eta pertsonal jarriko du kudeaketarako, besteak beste, Emakumion Etxerako bi teknikari kontratatuz.

Gobernantza eta kudeaketa bereizteak sistema konplexuago bihurtzen du, baina horri esker proiektuaren balioak egituren txertaturik daude.

Besteak beste, aipatzekoak dira:

- Boterearen banaketa orekatua eta partekatua da.
- Aldeen aitortza eta konfiantza sustatzen da.
- Elkarren beharra eta osagarritasuna aitortzen dira.
- Testuinguru gaitzaile, ahalduntzaile eta agentzia sortzaileak ahalbidetzen dira.
- Bidearen garrantzia azpimarratzen da.
- Gardentasunez jokatzen da eta kontu-ematen da.

Antolaketa-eredua

Etxiaren antolaketa-ereduak etxekideen mugimendua sostengatzea du helburu. Bereziki zainduko da egiturak ez dezan mugimendua itzali. Izan ere, edozein erakundetan egitura mardul batek mugimendua moteltzea ekar lezake, eta, egitura sinple batek, aldiz, egitura ezaren tirania. Hortaz, biak ala biak ertzeko errealitateak izaki, egituraren eta mugimenduaren arteko oreka bilatuko da.

Eredu honetan Etxiak behar duen horizontaltasuna, operatibotasuna eta eraginkortasuna uztartu dira, eta beste esparru batzuetan ezaguna den metodo soziokratikoaren aldeko hautua egin da.

Horrek aukera ematen du, besteak beste: erabakitze-eremuak gerturatzeko, parte-hartzea eta erantzukidetasuna ahalbidetzeko, agentzia-gaitasuna indartzeko, egitasmoarekiko ezagutza handitu eta loturak eraikitze, kidego-sentimendua garatzeko, erabakiak elkarrekin hartzeko –baina denek dena erabakitze beharra izan gabe–, hartutako erabakiak gauzatzeko eta abar.

Sistema honetan, tolerantziaren printzipioa lagun, erabakiak onespén bidez hartzen dira. Erabakiak gehiengoz hartzea baino aberatsagoa dela uste dugu eta, era berean, adostasuna bilatzea baino eraginkorragoa ere bada. Erabaketan aurrera egin ahalko da funtsezko objektuorik ez dagoen bitartean. Objektuak funtsezkoak dira, beraz, baliozkoak, baldin eta ikusarazten badute ordura arte erreparatu ez den alderdi bat. Gerta liteke objektu bat planteatu eta proposamena moldatzea. Modu horretara, objektua erabakian barneratuta geratuko litzateke eta adostasuna lortuko litzateke.

Eredua hau probatzeko nahikoa denbora emango diogu gure buruari: egonkortasuna emateko adina denbora, baina ez zaharkitua geratzeko bestekoa.



Gobernantzaren Elementuak

Zirkuluak

Oñatiko Emakumion Etxiak gobernantzarako egitura horizontal eta deszentralizatu izango du, elkarri-lotutako zirkulu edo taldeetan antolatuta.

Etxiaren helburuak erdiestera begira arreta behar duen guztia zirkuluetan banatu da: hala, erdiko zirkulu orokor bat eta hari lotzen zaizkion lau zirkulu espezifiko eta hiru azpi-zirkulu sortu dira.

Zirkuluek eginkizun argia eta jardun-esparru zehatza dute: botere-perimetroa. Nahikoa ahalmen dute beren jardun esparruan aritzeko, baita erabakitze, exekutatzeko eta ebaluatzeko ere. Zirkuluko kideek batera jarduten dute eta, beraz, soziokraziaren ereduari jarraikiz, batera erabakitzen dute.

Zirkuluetako kidetza librea da –Udalaren kasuan izan ezik–, bertan parte hartzen duten kideek soilik izango dute euren funtzioei dagozkien gaitan erabakitze ahalmena; alegia, esku-hartze eta erantzukizun-eremu zehatza dute eta erabaki operatiboak hartzeko gaitasuna dute.

Zirkulu espezifikoak

Lau zirkulu espezifiko sortu dira Etxiaren egitekoei erantzuteko:

- **Talaiakideak:** Proiektua jaso, errelatoa josi eta gogoeta aberasten dute. Oinarri teorikoa garatu eta kontrastatuko dute.
- **Programatzaileak:** Programazioan begirada anitzak txertatzen dituzte, irizpideak adosten dituzte eta emakumeen ahalduntzearen zein indarkeria matxistaren sentsibilizazio eta prebentzio lana aberasten dute, Udalarekin batera.
- **Zubilgileak:** Etxearen irekitasuna eta aniztasuna bultzatzen dute, herrian egitasmoa sendotu, finkatu eta baliosten dute; herritarren eta Etxiaren arteko zubi-lana egiten dute.
- **Jostunak:** elkarbizitzarako kodeak landu eta gatazkak kudeatzen dituzte; Etxearen printzipioak sustatzen dituzte, etxearen egiteko moduetan.

Gobernantza zirkulua

Gobernantza zirkulua gainerako guztien erdian kokatzen da. Bere helburua da koordinazioa eta estrategia gidatzea. Zirkulu honetan parte hartuko dute zirkulu espezifikoetako bi kidek, Udaleko bi kidek eta Etxeko teknikariek.

Asanbladak: Gobernanteen zirkuluak ebatzi ezin dituen gai edo egoeretan, krisialdietan edo salbuespen egoeretan asanblada deitu ahal izango da. Egituran parte hartzen duten etxekide guztiek, norbanako gisa, parte hartzeko gonbitea jasoko dute. Asanblada tresna bat da, ez da egitura bat bere horretan.

Azpi-zirkuluak

Azpi-zirkuluetako partaideek rol/zeregin hauek izango dituzte:

- **Etxekoandreak:** Etxean egotea eta presentzia izatea sustatuko dute, komunitatea eratze osagai garrantzitsua delako. Hala, Etxiaren irekierarekin batera, rol hori duten emakumeen artean zirkulu bat sortuko da, Etxearen gobernantza-sisteman erabaki-ahalmena izan dezaten. **Jostunak** taldeari lotutako azpi-zirkulua da.
- **Bidelagunak:** Elkar zaintzeko helburuarekin, emakumeenakonpainamendua egingo dute bidelagunek. Etxeko teknikariak arduratuko dira emakumeen eta bidelagunen arteko loturaz eta koordinazioaz. **Jostunak** taldeari lotutako azpi-zirkulua da.
- **Saltserak:** Ekintzak aurrera eramaten parte hartu nahi duten emakumeak dira saltserak. Berdintasunari lotutako egun adierazgarrietan zein bestelakoetan etxekideei parte hartzeko proposamena egingo diete, baita kaleak hartzekoa ere. **Programatzaileak** taldeari lotuta daude.

Azpi-zirkuluen ezaugarri bat da informalitatea: hauetan ez dira beti taldeetako rolak banatuko eta etxeko teknikariek euren gain hartuko dituzte. Era berean, bilerak aldizkakoak izatea aurreikusten da. Talde hauetan garrantzitsua izango da kideen arteko parte hartze parekatua izatea eta irisgarritasuna eta gardentasuna kontuan hartzea.

Rolak

Zirkuluek erabaki operatiboak hartzeko gaitasuna dute. Baina horrek ez die autonomia osoa ematen, egitura osoarekiko harremana baitute. Horregatik, erdi-autonomoak direla esaten da.


- **Lotura bikoitzak:** Zirkuluak egiturarekiko isolatuak ez geratzeko eta euren arteko komunikazioa eta koordinazio bermatzeko, lotura bikoitz bidez konektatzen dira gobernantza zirkulura. Hori bi rolek osatzen dute: koordinatzaile batek eta ordezkari batek.

Koordinatzaileak zirku espezifikoetara eta hauen azpi-zirkuluetara informazioa eramaten du. Rol hau etxeko langileek beteko dute, etxekideak rol hau hartzeko prestatu bitartean, lana errazte aldera.

Ordezkariek informazioa darama zirkulu espezifikoetik gobernantza zirkulura. Lau zirkulu espezifikoetatik bina ordezkari izendatuko dira. Bi izango dira funtzionamenduaz jabetu eta segurtasuna lortu bitartean. Ondoren, zirkuluko ordezkari bakarra egotea aurreikusten da. Ordezkarik rola hartzen duten etxekideak eskubide osoko kideak dira: erdiko zirkulura mezua eramateko ardura dute, baina ez dute galtzen zirkulu espezifikoan ahots propiorik.




Udalaren lotura bikoitza honela egingo da: berdintasun-teknikaria izango da koordinatzailea eta ordezkaritza, berriz, Berdintasun Batzordeko bi ordezkari politikok egingo dute.

Zirkuluetako funtzionamenduari laguntzeko eta zirkuluetan kidesuna eta erantzukidesuna lantzeko, beste hiru rol ere izendatuko dira zirkuluetan: erraztailea, aktalaria eta bileraren arduraduna.



- **Erraztailea:** etxeko teknikariak hartuko dute beti rol hau. Harremanak erdigunean jarrita, taldearen lana errazten du; finean, zirkulari laguntzen dio, helburuak lor ditzan. Taldeari tresnak ematen dizkio, zirkuluaren eragite-eremutik ez urruntzeko eta helburuari lotzeko. Kideen parte-hartzea segurua eta orekatua izan dadin neurriak hartuko ditu eta denborak kontuan hartu edota tentsioei erantzun. Gai ordenaz eta denboraren kudeaketaz ere arduratzen da (puntueltasuna, ordutegia betetzea).

Dinamizazioa gainditu eta gidari-zereginetan erortzeko arriskua egon daitekeenez, taldearen elkarrizketa eta eztabaidetan ez du bere posizioa gehiegikeriaz baliatuko eta bere funtzioen neurria gaindituko. Erraztaileak anfitrioi-lanak ere egiten ditu, kide berrien harrera egokia izan dadin.




- **Aktalaria:** zirkuluetako eztabaidak eta erabakiak dokumentatzeaz arduratuko da. Zirkuluaren informazioa antolatuko du, taldean adostutakoaren arabera.
- **Bileraren arduraduna:** bileren deialdiak eta gogorazpenak egiteaz arduratuko da. Era berean, espazioa aurrez atonduko du eta bilera hasi bitartean kideei harrera egingo die.

Rolak txandakakoak izango dira eta hautagairik gabeko hautaketa bidez aukeratuko dira. Metodo honekin taldekideek onespén bidez erabakitzen dute nork beteko duen rol edo funtzio bat: ez du kide batek bere burua hautagai modura aurkeztuko. Horren orde, kideek funtzioaren ezaugarriak deskribatuko dituzte eta hori betetzeko beharrezkoak diren irizpideak ezarri: gaitasunak, ezagutza, jarrera, etab. Funtzioa hobekien beteko lukeen pertsona bat proposatuko du kide bakoitzak, modu anonimoan eta argumentatuta. Proposatutako pertsonen artean bat aukeratuko du taldeak.

Txanda bakoitzak ikasturte bateko iraupena izango du. Horrela, hautatu berriek rolera egokitze eta ikasteko denbora nahikoa izango dute eta, era berean, hurrengo sartuko den pertsonari informazio trasbasea egiteko astia ere izango da.

Udalaren Partaidetza



Udalak irizpide hauen arabera jardungo du:

- Espazio horietara jakintza teknikoa eramango du, baina iritzirik ez.
- Ahal den heinean, taldeen autonomia indartuko du.
- Ez du tutoretzatik jardungo.
- Arreta berezia jarriko du pertsonengan (beharrak, rolak...), harremanetan (komunikazioa), prozesuetan (informazioaren kudeaketa, lanen banaketa, erabakiak hartzeko prozesua), zirkuluaren egituraren (barne-arauak) eta emaitzetan (planifikazioa eta exekuzioa).
- Taldekideen ahalduztze indibiduala eta kolektiboa sustatuko du, erabakiak zuzen hartzeko eta gauzatzeko baldintzak sortuta.
- Lan-kargak arindu eta espazioetako jarduna aberastuko du, kudeaketako eginkizunak eta lan-zama handia eragiten dutenak bere gain hartuz.

Udalak bi planotan parte hartuko du: kudeaketan eta gobernantzan.

Gobernantza: plano honetan, maila teknikoa eta politikoa bereiziko dira. Udalak, maila politikoan, ordezkaritza izango du Gobernantza zirkuluan eta Udal Batzordearen iritzi bateratua ordezkatuko du.

Maila teknikoan, berdintasun-teknikaria eta etxeko bi teknikariak daude. Etxeko teknikariak erraztaile rola izango dute gobernantzari dagokionean. Era berean, berdintasun-teknikariak ere parte hartuko du **Programatzaileen, Zubigileen eta Jostunen** zirkuluan. Udalaren ardura pekoak diren proiektuak partekatuko ditu taldeetan: horien garapena, komunikazioa landuko ditu etxekideekin batera.

Kudeaketa: Udalak baliabide ekonomiko eta teknikoak jarriko ditu Etxearen esku. Etxeko bi teknikariak izango dira etxearen proiektua kudeatzaileak. Era berean, kudeaketaren jarraipena egiteko Berdintasun Sailaren laguntza izango dute. Antolaketa-eredu eta gobernantza-sistemaren jarraipena egiteko, aldira edo beharren arabera, Partaidetza Saileko teknikariak ere, parte hartuko du talde horretan.

Bidelagunak

Emakumion Etxiaren antolaketa eta gobernantza sistemaren parte diren elementu guztiak aipatu ondoren, bidelagunak deskribatuko ditugu. Izan ere, proiektuaren eragile aliatu batzuk identifikatu dira eta datozen lerroetan azaldu dugu horiekin zein harreman izan nahi genukeen:

Emakumion Kontseilua

Kontseilua udal mailako organoa da. Udalaren politikak ikuskatzeko kontrol-mekanismoa da eta genero-ikuspegia aplikatzen dela gainbegiratzen du. Hori horrela izanda, Etxearen inguruan Udalak hartzen dituen erabakiei adi egongo da eta jarraipena egingo die.

Hori horrela, Etxiari goragoko plano batetik begiratzen diote; politika publikoen aterkitik.

Kontseiluak mahai gainean jarri du euren dinamika errespetatzeko beharra, eta, beraz, ez da aurreikusten Etxiaren antolaketa espazioetan parte hartzea modu jarraitu edo sistematiko batean. Hala, Etxiaren eskakizunak Kontseilura trasladatze bideak ezarriko dira: unean uneko beharren arabera deituko diren aldizkako koordinazio-bilerak edo ezohiko bilerak, Etxearen eta Kontseiluaren artean Etxiaren behar konkretuak atenditzeko.

Herriko eragile feministen rola

Mugimendu feminista formalki eratutako talde feministez haratago doan zerbait da. Are, Emakumion Etxia ere herriko mugimendu feministaren parte da: izan ere, antolaketa sozio-politikorako esparrua da hainbat emakumerentzat. Etxetik kanpo ere badira eragile feministak eta horiekin harreman estua izatea funtsezkoa da Etxearentzat. Zentzu horretan, garrantzitsua da eragile horien eragite-eremuak errekonozitzea eta zaintzea.


Uste dugu onuragarria dela antolaketa sozio-politikorako espazio guztiek estrategia komun batzuk partekatzea. Horretarako, guztien arteko elkarriketa eta elkarlana sustatuko du Etxeak.

Zentzu horretan, zirkuluak, aldian-aldian, herriko talde eta eragile feministekin harremanetan jarriko dira ekintzen koordinaziorako, eztabaida politikoak partekatze, elkar osagarritzeko, elkar laguntzeko eta abar.


• **Topaguneak:** bidelagunekin zein herritarrekin proiektua elkarbanatzeko aukerak dira Topaguneak. Bere helburuak dira herritarrei Etxia aurkeztea, harrera egitea eta ospatzea; talde-kontzientzia eta talde-kohesioa sustatzea; tentsioak eta gatazkak kudeatzea, taldera egokitutako bitartekoekin (bazkari, festa, irteera, lan-saio, formazio...) Horrez gain, Etxiaren intereseko gaiak aztertze tresna modura era baliatu daitezke Topaguneak, zirkuluetan erabakiak hartu aurreko espazio gisa. Topaguneen antolakuntzan beste zirkulu batzuk ere parte hartzea beharrezkoa ikusten bada, horretarako prestutasuna egongo da.

Topaguneetan ez da erabakirik hartuko, zirkuluen funtzioarekin talkarik ez egiteko. Izan ere, kide berriei harrera egiteko espazio bat izanik, ez da uztargarria erabakiak hartzeko dinamika batekin.

Oñatin, 2025eko apirilaren 4an



Oñatiko Emakumion Etxeko Gobernantza eta Antolaketa Egitura



Zatoz zu ere!

 688 78 52 47

 Kale Zaharra 13, Oñati

 @emakumionetxia

 berdintasuna@onati.eus

oñati.eus



OÑATI
dabilen herria